

Zumaiena, **zumaiarron artean aurrera daramagun** Hezkuntza Erakundea da, eta **0-18 urte bitarteko ibilbidea ikastetxe berean** egiteko aukera ematen die ikasleei. **Konfiantzaren Pedagogia** izeneko pedagogia arrakastatsuarekin eta **irakasle talde finkoarekin** dihardugu lanetan, arkitektonikoki erreferentziazkoak bihurtu diren azpiegitura berritzaile eta iraultzaileak lagun ditugula.

Horrez gain, erakunde jasagarria garen aldetik, ingurumenarekiko konpromiso irmoa daukagu hartuta: horrekin lotuta, **SUKALDE GIROAN** edota **BASO MAGIKOA** bezalako proiektuak ditugu esku artean. “0 Km” politika erabiliz, gure sukaldariak etxean bezala prestatzen ditu egunero bazkariak inguruko baserrietako produktuekin. **BASO MAGIKOA** proiektuarekin, berriz, espazio naturala berreskuratzeaz gain, arlo pedagogikoa eremu naturaletan lantzeko aukera izango dugu ikasleekin, anfiteatroa, domo geodesikoa edo askotariko jolasguneak erabiliz. Horrekin batera, gainera, familiek, gizarte-mailako hainbat eragilek eta zumaiarrek espazio paregabe hau erabiltzeko aukera izango dute

Halaber, nabarmentzekoa da Finlandian garatu eta mundu mailan arrakasta handia izan duen *bullying*-aren eta eskola-jazarpenaren aurkako **KIVA programarekin** daukagun konpromisoa, gure eguneroko jardunaren zeharka txertatzen dugularik.

Zumaienan, haurrei ikasten erakustea da gure lanaren ardatza. XXI. mendeko hezkuntzaren funtsezko jomuga ikasleen duintasuna, gaitasuna eta ongizatea areagotzen laguntzea da, besteekiko eta naturarekiko harremanean. UNESCOren adierazpen horrekin bat eginez, Zumaienan (**UNESCO IKASTETXEEN SAREKO KIDE IZANIK**) egungo gizarterako prestatu nahi ditugu gure ikasleak... Haurrak mundu global eta ireki baterako prestatu... **gure izana eta izena ahaztu gabe.**

Barrutik sendo eta indartsu prestatu nahi ditugu haurrak, mundura modu berean zabal daitezen: ikasteko gaitasuna eta ikasteko grina duten ikasleak nahi ditugu. Kanpoko nahiz barruko espazioak eta proposamen pedagogikoak helburu horretara bideratzen ditugu Zumaienan.

Elkarren arteko konexioak inoiz baino garrantzitsuagoak bihurtu diren munduan, gizarteko beste hainbat eragilerekin dihardugu elkarlanean: esaterako, unibertsitatearekin eta gizarte-ekimeneko hainbat erakunderekin. **Gure proiektuak familiekin eta hezkuntza-elkarteko kideekin elkarlanean eramaten ditugu aurrera**, gure herrian hain sustraituta dagoen **auzolanari jarraiki**: horrela egindako gauzek balio erantsia dutelako eta gehiago zaintzen direlako.

Haurrak dira etorkizuneko herritarrak. Haurren etorkizuna dago jokoan. Gure herriko sustraiak tinko, nor eta zer garen ahaztu gabe... etorkizuna hobetzeko gai izango diren ikasle gogotsuak nahi ditugu.

Sustraietatik adarretara, barrutik kanpora, gure berezkotasunetik mundu zabalera....

Zatoz Zumaiena ezagutzera!